


**Vendredi 13 Mai**  
**Maiatzaren 13an Ostiralea**

**21:00 ANTZERKI ERRINGARRIA**

**Xistera Ostatüan**



**CLOWN ANTZERKIA**

Pierre Vissler clownaren joküaldia.

Iraüpena: 20min

<http://vivi-clown.blogspot.fr/>


**DESENTXUFATUAK ANTZERKIA** (Théâtre Bascophone)

Testua: Patxo Telleria; Arizaleak: Mikel Martinez, Patxo Telleria; Tartean Antzerki Taldea ( Bilbo)

Iraüpena: 60min

Publikoartera agertzen dira euren frustrazio, desio eta kexak adierazteko. Maitasun istoriorik ederretan bezala, euskera maite dute eta gorroto. Gorroto dutelako maite dute; maite dutelako, gorroto. "Desentxufatuak" katarsi ariketa bat da. Euskera ikasleentzat bada, jakina, euren isla (deformatua) ikusten dutelako eskenatokian. Baina euskera ikasle ez direnentzat ere.

Euskaldun guztion islaere badirelako bi pertsonaiok. Euskaldunok ditugun desio, kexa, eta obsesio berberak dituztelako. Eta obsesioetan, bi nagusi: euskera bera eta... bai, sexua, jakina! "DESENTXUFATUAK", "Euskera Sencilloaren Manifestoa" eta "Larruaizetara" antzezlanen eskenarik onenekin osatua dago. Artifizio handirik gabe agertu nahi dugu publiko aurrean, aurreko ikuskizunen eskenarik arrakastatsuenetaz baliatuz kalitatea konzentratua eskeintzeko. Ez Dok Hiru-ren funtsa "unplugged" (desentxufatuak)



# SAMEDI 14 Mai

## Maiatzaren 14an Neskenegüna

### 18:00 KANTÜ TXAPELKETA

#### Herriko plazan / Place du village

Xiberoko Botzak antolatürik

Euskal Kantu Txapeketaren Xiberoko haütaldia. Eüskal kantoreaz gozatzeko parada ezin hobea eta Euskal Kantu Txapelketaren finalean Xiberoa ordezkatzeko ohorea izanen düenen haütatzea. Bakarka, biazka edo taldean lehiatüko direnen artean epaimahainaren sariak emaitiaz gain, behazaleen saria ere badateke.

### 20:00 TZÜNTZÜR BUXTITZE / PINTXO

Bil Xokoako sükaldariek 500 pintxoz goiti eginen dütüe. Tzüntzür buxtitze hau OILARRAK taldekoek alageratüko deiküe.

**OILARRAK / EZPELA / KAUTER ZINFONIA** Müsikaren Egünaren 20. urtebüüarentako plantan ezarri zen soinüjoile talde honek txülülaz, djembéz, «accordéon»-ez, arrabitzaz eta gitarraz beharriak xarmatüren deizküe. Aire gaitzak dateke !

### 22:00 KONTZERTUA Dohainik



### JUPITER JON (IRUN - EH)

Irunerik jinen zaikün Jupiter Jonen proposamena müsika kente hanitxetakoa da: Rhythm and blues, post-punk, reggae, folk edo kanpoan egin grabatzeak.

Hala, Jupiter Jonen bigerren lan hontan, "Eta metaforak greba egin zeben..." eklektismo hori bada: Paleolitikoa eta gero Elvis kantüz entzüten diren rockabilly gozoko onomatopeiak, «Satanak» kantorean alboka da nausi, kantore batentan afrikanismoa, Festa komunisten abestiko dub giroa edo Gansterrak operara doaz kantoreko lirisma!

[//jupiterjon.bandcamp.com/](http://jupiterjon.bandcamp.com/)

# DIMANCHE 15 Mai

## Maiatzaren 15an Igante

### 11:00 HERRIKOI TRÜKAKETA

Herriko ttipien ikusgarria / Bertso / Txalaparta / Herriko dantzak / Aintzindariak Maskaradetako buhame andereak. GAITAMIK eta MUSIK'ALDE bazterren alagerazale

### 13:00 AXURKI BAZKARIA

Zugarramurdiko sükaltariak peko süan adelatürik eta Xiberoko Ikastoleek zerbütatürik

### 12:00 KARRIKA MÜSIKA / DEAMBULATOIRE 21:00

#### OLD SCHOOL FUNKY FAMILY (BAIONA)

Le septet instrumental assène un groove à toute épreuve, mixant les sonorités au gré des influences apportées par chacun – une base de funk US, secoué d'Afrobeat nigérian et de musique trad, serti dans la classe du jazz européen – faisant la part belle à l'improvisation et à l'interactivité.

#### MINIMUM FANFARE (BORDEAUX)

Minimum Fanfare pour un maximum de bruit.

Le Minimum Fanfare peut sortir d'un placard pour laisser exploser avec finesse son énergie hostile à la position assise. Vous ne vous attendrez sûrement pas à le retrouver ici ou là pour rappeler que le monde entier a besoin de danser, de bouger et d'un minimum d'humilité pour s'éclater.

### 15:00 KONTZERTUAK Dohainik 24:00




#### IZAKI GARDENAK (GAZTEIZ - EH)

Folk Pop müsika

Izaki Gardenak da 2012. urtean Jon Basagurenen bakarkako kantan aritzeren lagüntzeko plantan dezarri den taldea. Üngürüko lagünekila talde gisa plantatürik, algarrekila aritze bat da, nahiz eta Jon den gidari baratzen dena.

«Aurri Gara» izeneko azken lanean, Folk amerikar eta Pop müsikaren arteko mügan dago Izaki Gardena-en soinüa, gitarra akustikoak lagüntü doinü la-saiak, sentimentüz beterik den eta melankolikoa den lana moldatü dü boskoteak.

[www.izakigardenak.com/](http://www.izakigardenak.com/)



## UKANDANZ (ETIOPIE-LYON)

Fusion Rock et Ethio-Jazz.

Estilo oso berezi bat, laukote elektriko baten eta Asnake Guebreyes Addis Abebako gano eta ospe handiko kantariaren arteko kūrützatze arraroa. Beren müsika abiatzen da Etiopiako herri kantore eta eresietarik, bena franko ausarki ere basahaire bat lotzen deie. Orenen bürüan, rock energia batek atitxatzen dü dena. Gitarra, saxofono, soinü joherroka eta botzak botitzen dira eta zerbait egiazki harroa egiten, gure beharriak iharraustera kausitez. Zer gozame-na ! UKanDanZek borogarazten deiküna da egündanoko indar bat emaiterean eta sentiberatarzünak piztearen arteko zerbait. Behatzekoa, gozatzekoa eta bizitzekoa...

[www.ukandanz.com/](http://www.ukandanz.com/)



## SCHLAASSS (ST ETIENNE)

Rap Punk Volvo Core

Saint-Étienne eta Lyon hirietarik jiten diren Schlaasss taldekoek bazter hanitx erauzi dütüe jadanik. Beren kantatzeko manerarekila, Charlie Dirty Duranek et Daddy Schwartzek gizamailen arteko borroka punk eta territazale bat arrasortarazten deiküe. Okerrairea, nabaskeria eta poesia baliatzea, hau da Schlaasss-ek gogoan düana. Hitzetan pürü, odola partiarazi nahi beütüe «oranokoan bizi girela ohartzeko».

Arakin baten ganibeta bezain zorrotzak diren beren hitzetan, familia handiko alaba bat urdaina bilakatzan da eta basa bazterretara bizitzera jinik diren burges semeak goxarbi lantazale egiten dira. Gliskatze, territatze eta jente

<http://www.schlaasss.fr/Slaasssch.html>



## NISHTIMAN (KURDISTAN)

(« sorterrria, aberria », patrie » kürdiarrez)


Herri müsika.

Talde honek badü nahikünte balios bat: kürda müsikaren mündü zabalean ezagütaraztea. Hala, Nishtiman taldekoek Kürdistaneko mendien artean joiten den herri müsika deiküe eskentzen, islam erreligionearen ohidüra mistikoetan arpatzen den «soufie» müsika kentarekila botitürrik.

Haatik, Nishtimanen gogoa ez da müsika «nazionalista» baten ordezkari izatea, bai, aitzitik ere, ageriala ekartea müsika kürda nolaxe den beste kütüra elibatetik hazten. Ezi, Iran, Armenia, Türkia, Siria eta Irakeko müsika ohidüretarik hartzen dü kürda müsikak, eta üttürri haietarik edaten dü. Müsika horrek, arren, boztarioa, alegantzia, gozameña eta xanfart egitearen elikia botitzen dütü. Halere, azali horietan eta kantarien botzetan bada barnatarzünik eta sentikortazünik.

Nishtiman behatzez, Ekialde Ertainaren gainti soinü eta ahairez kurritzen gira, dantzak debrüaren airean üngürakatzen dira, eta alegantzia koloretsü horrek herrialde batetik besteala, erritmo battetik besteala, herri ahaire batetik amodio eresi batetara eramiaten gütüe, taigabe.

<https://www.youtube.com/watch?v=NGAomktRBaw>



## CHRISTINE

Aeon Sevenek eta Kunst Thrownen bazüen jadanik, ba-koitxak bere gaintitik, bide eginik, algarrekila aritzea eta Christine izeneko bekanika distirant batetan ebiltea delibetatü züelarik. Izen hau haütatü züen John Carpenter filmegilearen obran agertzen den Plymouth Fury 1958 gorria gogoan ükeitez.

Süa eta hura botitzean agitzen den gisan, hotz-bero tüpüstätze bat bezala borogatzen dü behazaleak. 2011. urteko «Découvertes du Printemps de Bourges» alkarretarazetan arrakasta ederra bildürrik, Christinek bide eder- ra dü orai aitzinean.